



Iraunkortasunabuletina

2024ko urriaren 23a, asteazkena
Atea: 18

DEIALDIA

[u4impact: 1. deialdia euskal enpresen partaidetzarekin](#)

Benetako erronka landu nahi duzu iraunkortasunarekin konprometitutako enpresa, fundazio eta ekintzaileekin? u4impact plataforma haiekin harremanetan jartzen laguntzen dizui inpaktua duen GrAL edo MAL bat egiteko. Deialdia **azaroaren 30era arte** egongo da zabalik eta bere [webgunean](#) kontsulta dezakezu informazioa.



PROIEKTUA



[ATTUNE: Informative and training session](#)

Proiektu honen amaiera dela eta, Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak online prestakuntza-ekitaldi bat antolatu du urriaren 28an. Kontsultatu informazio guztia [hemen](#).

ALBISTE INTERESGARRIAK

[Campus berdeei buruzko txosten berria](#)

"**Campus berdearen sorrera: klimaren aldeko ekintza gidatuz eta ekosistemak zainduz**" dokumentuak, goi-mailako hezkuntza-erakundeetako jasangarritasun-ekimenen egungo egoera aztertzeaz gain, mundu mailan jardunbide egokiak inspiratzen dituzten kasuak nabarmentzen ditu, eta hirugarren hezkuntzako erakundeek beren campusak eraldatzeko har ditzaketen neurri zehatzak azaltzen ditu.



"KLIMAMETRAJE" Klima Aldaketari buruzko gazteen mikro-laburren III. Lehiaketa

Lehiaketa teknologia berrien bidez ikus-entzunezko sorkuntza zabaltzen bideratuta dago, ikus-entzunezko sortzaile gazteen talentuari esker, larrialdi eta ekintza klimatikoa ezagutarazteko modu berriak aurkitzeko. Deskargatu [oinarriak](#) hemen eta aurkeztu zure mikro-laburra **azaroaren 11ra arte**.

Trantsizio ekosozialerako unibertsitate-baratze ekodidaktikoen manifestua

Red de Universidades Cultivadas sareak Eraldaketa Ekosozialerako Unibertsitate Baratze Ekodidaktikoen Manifestua argitaratu du. [Hemen](#) kontsulta dezakezu eta zure atxikimendua erakutsi dagokion formularioa betez, QR kodea eskaneatzuz.

HURRENGO EKITALDIAK

Ez galdu!

2024/10/26. [UPV/EHUko ikasleen VII. Biltzarra. Gure Gradu Amaierako Lanek \(GrAL\) mundua aldatzeko balio dute](#)

2025/02/20 – 2025/02/21. [Symposium on Qualifications, Training, Micro-Credentials and Sustainable Development](#). Abstract submission deadline: 2024/10/30

NEWSLETTER HAU ZURE NEEWSLETERRA DA

2.500 harpidetu baino gehiago ditugu dagoeneko. Buletin honetan jasangarritasunarekin zerikusia duen edukiren bat ezagutzen eman nahi baduzu, idatz iezaguzu iraunkortasuna@ehu.eus helbidera.